

ITSAS INSKRIPZIOAREN LIBRETA EDO MARINELAREN NORTASUN AGIRIA

Marinelaren Nortasun Agiri berria indarrean sartzeaz batera, urrats hauek eman behar dituzte ikasleek itsasoratzeko beharrezkoak diren agiriak lortuko badituzte, **betiere aurretik itsas inskripzioaren libretarik edo MNArrik ez badute.**

1. Itsas inskripzioko libreta lortzea, merkataritzako edo arrantzako titulu profesionala edo oinarritzko prestakuntzako ziurtagiria duten espainiar herritarrei emango zaiena.
2. Marinelaren Nortasun Agiria (txartela) eskatuko zaie atzerriko edo atzerriko nabigazioa egiten duten merkataritza ontzi nazional edo atzerriarretako tripulazioetan parte hartuko duten espainiar herritarrei, bai eta nazioarteko itsas uretan arrantzan ari diren arrantza ontzi nazional edo atzerriarretako tripulazioei ere.
3. Marinelaren agiria lortu ahal izateko, beharrezkoa da NANaren iraungipena 6 hilabetekoa edo hortik beherakoa izatea. Lehenago iraungiko balitz, NANA berritu beharko da M.N.A. eskatu baino lehen eta indarrean izan beharko ditu Segurtasuneko Oinarritzko Prestakuntzaren ziurtagiria eta indarrean dagoen osasun azterketa.
4. Azterketa medikoa egin ahal izateko, Itsasoko Gizarte Institutuak eskatu egiten du libreta eta Itsas Segurtasunari buruzko Oinarritzko Prestakuntza indarrean izatea.
5. Marinelaren Nortasun Agiria tramitatzeko epea, batez beste, 20 eta 30 egun bitartekoa izango da.
6. Ikasle gisa ontziratu ahal izateko, eskolek ikasle ziurtagiria egin beharko dute (269/2022 Errege Dekretuaren 42.c) artikulua) eta ikasleek Segurtasunari buruzko Oinarritzko Prestakuntzaren ziurtagiria izan beharko dute, bai eta Itsasoko Nortasun Agiria ere (egingo duten nabigazioari eta ontzi motari aplikatzekoa bada). Honez gain, Gizarte Segurantzaren istripu aseguruia edo alta emandakoa eta Itsas Nabigazioko Libreta izan beharko dituzte, bai eta indarreko mediku ziurtagiria ere.

Honako hauek dira marinelaren nortasun agiria (txartela) egiteko eskatzen diren agiriak:

- Eskaria, behar bezala beteta.
- NANA, bere iraungitze data 6 hilabete edo gutxiagorako izango duena; hala ez bada, aldeztu aurretik berritu beharko da. Norbere datuen egiaztatzea kontsultatzea onartzea.
- Tasa ordaindu izanaren frogagiria, 2022ko urtekoa 42,88 € izanik (790 eredu, 094 kodea).
- Itsas segurtasuneko oinarritzko prestakuntzaren ziurtagiria edo gaitasun titulua indarrean izatea.
- Gaitasun fisikoaren mediku ziurtagiria indarrean izatea.
- Erantzukizunpeko adierazpena, MNA eskuratu ahal izateko (I. eranskina).

MNA Libreta aldeztatik izanez gero, Itsas Kapitaintzan edo Barrutietan jasotzeko da egoera horretan egin behar diren urratsei buruzko informazioa.

Pilaketak saihesteko, aldeztatik eskatu beharko duzue hitzordua Itsas Kapitaintzetan eta/edo Itsas Barrutietan.

Edozein zalantza izanez gero, egin kontsultak helbide honetara:
capitania.bilbao@mitma.es